

Xalbadorrez eta diasporaz mintzatuko dira Urepelen Xalbador Egunean, urriaren 14an

Mahai-ingurua, bertso saioa eta erromeria egingo dira, besteak beste, bezperako afariaz gain

ARANTZAZU MUÑOA

Aurtengo Xalbador Eguna urriaren 13an eta 14an egingo da Urepelen. Orain dela lau urte hasi zen Deiadarra elkarteak Xalbador eguna antolatzen. Aurrez Joxe Mari Aranaldek egin ohi zuen lanari jarraipena ematea zuen xede. Izan ere, Xalbador hil zenetik hark antolatu izan zuen urtero Xalbador Eguna. Deiadarra elkartearen helburua hasierakoa izaten jarraitzen du orain ere: «Gure nortasuna eta Xalbadorrek utzi daukun mezua bizirik atxikitzea nahi dugu iparraldeko euskaldunen artean ere», adierazi du Itxaro Bethart elkarte-ko arduradunak.

Xalbador gogoratu eta goraldutik nahi dute, baina baita haren ingurua ere. Horregatik, urtero gai bat hautatzen dute. Orain bi urte Xalbador eta mendia izan zen gaia; iaz, Xalbador eta Mattin. Xalbador eta diaspora izango da aurtengo gaia. Izan ere, Xalbador Ameriketara ibili zen. Bi aldiz izan zen han, eta benetan txundituta etorri zen han euskaldun asko ikusi zituelako. Bertso bat baino gehiago ere eskaini zien munduko leku bateko eta beste euskaldunei.



Xalbador, Donostian, *Odolaren mintzoa* liburuko argazki batean. ANTONES

Egun nagusia urriaren 14a izango den arren, aurreko egunean lagun arteko afaria egingo dute Urepelen. Garai bateko istorio zaha-

rrak berreskuratu nahi dituzte afalondoan, garai batean mahai-inguruan istorioak eta ipuinak kontatzeko ohitura baitzegoen

Urepelen. Igandean meza nagusia izango da 10:30ean, eta ordu berean Urepelen barna ibilbide motz bat ere egingo da herria ezagutzeko. 11:30ean diasporari buruzko bi-deolana eman ostean, mahai-ingurua egingo da Xabier Euzkitzek aurkeztuta. 13:00etan, berriz, *Aperitifa* izango da herriko plazan, eta bertan ariko dira Baigorriko Arro-la taldeko dantzariak eta trikitilariak. 13:30ean bazkaria egingo dute, Xendaireko ahizpek eta Aire ahizpek alaiturik. 15:30ean Potxin eta pailazoak ez ezik, bertso saioa ere izango da Kurutxet, Goni, Egaña, Garmendia eta Colina bertso-lariek; eta gero erromeria.

BERTSOPAPER LEHIAKETA BERRIKUNTZA.

Bertso saioaren ondotik, bertsopaper lehiaketako sariak emango dituzte. Aurtun lehen aldiz antolatu dute Xalbador Egunerako bertsopaper lehiaketa. 16 urte artekoen-tzat eta 16 urtetik gorakoentzat izango da. Bertsoetarako gaia euskaldunak munduan da, diasporarekin zerikusia duen gaia baita. Bertsopaperak urriaren 1a baino lehen aurkeztu behar dira. Joxe Mari Iriondo Xalbador Egunaren antolatzailearen esanetan, zenbait herritan bertsopaper lehiaketak egiten diren arren, bertsopaperen ohitura galduz doa: «Lehen bazen non argitaratu bertso horiek, baina une honetan bertsoak jartzen dituztenek ez dute bertso horiek non argitaratu».